

GRAMATIKA: *EURO-A DELA ETA*

Gasteizen, 2001eko martxoaren 12an

*Jesus Mari Makatzaga,
Gramatika batzordeko idazkaria*

Joxe Ramon Zubimendi jauna JAGONET zerbitzuko arduraduna.

Adiskide hori:

Zuk bidalitako azken hizkuntza kontsultaren erantzuna ematera natorkizu lerro hauen bidez, *Euro* hitzaren inguruko zalantzak biltzen dituenarena, alegia.

Azpimarratuta eta letra beltzean datoz Gramatika batzordearen ustez hobestekoak diren formak (galderetan agertzen ez ziren aukerak dira batzuk):

- a) *Txanponak eurotan / Txanponak euroetan*
- b) *Txanponak euro centetan / Txanponak euro xentimotan / Txanponak euro xentimoetan / Txanponak euro(-)zentimotan*
- c) *Euro bat eta 5 xentimo / Euro bat eta 5 zentimo*
- d) *Euroaren 10 xentimo / 10 euro(-)zentimo*
- e) *2 eurokoa, 5 eurokoa, 10 eurokoa, 50 eurokoa / 2 eurotako, 10 eurotako, 50 eurotako*
- f) *Euroaren 2 xentimokoa / euroaren bi xentimotakoa / 2 euro(-)zentimokoa*
- g) *2 xentimokoa / 2 xentimotakoa / 2 zentimokoa*
- h) *5 xentimoko txanpona / 5 xentimotako txanpona / 5 zentimoko txanpona*
- i) *Euroaren 5 xentimoko txanpona / euroaren 5 xentimotako txanpona / 5 euro(-)zentimoko txanpona*
- j) *5 euroko billetea / 5 eurotako billetea*
- k) *50 euroko billetea / 50 eurotako billetea*

- l) Txanponak: *1 euro* (jakina, ahoz “euro bat” esan beharrekoa) / euro 1
2 euro
euroaren xentimo bat / 1 xentimo / *1 euro(-)zentimo*
euroaren 2 xentimo / *2 euro(-)zentimo*
euroaren 5 xentimo / *5 euro(-)zentimo*
euroaren 10 xentimo / *10 euro(-)zentimo*
euroaren 20 xentimo / *20 euro(-)zentimo*
euroaren 50 xentimo / *50 euro(-)zentimo*
- m) Billeteak: *5 euro*
10 euro
20 euro
50 euro
100 euro
200 euro
500 euro
500 euro

Oharra:

Hitz elkartu bidez eman dugun egituran (*euro(-)zentimo*), denboraren poderioz lehendabiziko osagaia galduz joango da seguruenik, eta *2 euro(-)zentimo* esan beharrean *2 zentimo* esango da; hala ere, oraingoz hitz elkartu osoa emango genuke.

Zure eskaerari erantzun egokia eman diogulakoan, nahi duzun arte.